

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Laparra lehendakariordeak oso positibotzat jo du Nafarroan langabezia-tasak izandako beheranzko joera; orain, %9,93koa da

Autonomia Erkidegoen artean, Foru Erkidegoak izan du langabezia-tasaren jaitsiera handiena.

Osteguna, 2018.eko uztaialak 26

Eskubide Sozietako lehendakariorde Miguel Laparrak oso positibotzat jo ditu [Biztanleria Aktiboaren gaineko Inkestaren \(BAI\)](#) datuak; izan ere, Nafarroan langabezia-tasak behera egin du, eta, orain, % 9,93koa da, Estatuko Autonomia Erkidego guztien artean kopururik baxuena, hain zuzen.

BAIren emaitza nagusiek erakutsi duten moduan, 1.200 langabe gutxiago daude, 3,75 gutxiago, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta; azken urtean, %5,12ko jaitsiera gertatu da, hots, 1.700 langabe gutxiago. Okupazioari dagokionean, Nafarroan 7.900 okupatu gehiago daude 2018ko bigarren hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, eta, orain, okupazioa 284.000 pertsonakoa da.

Eskubide Sozietako titularrak azpimarratu du azken hilabeteetan hobekuntza-joeren kointzidentzia positiboa gertatu dela, nahiz eta adierazi iraupen luzeko langabeen tasa zein behin-behinekotasuna hobetu beharra daudela. Era horretan, esan du "Nafarroako Gobernuak bi eremu horietara bideratutako enplegu-politika aktiboak abian jarri dituela". Ildo horretan, gogoratu du aste honetan bertan argitaratu dutela 45 urtetiko gorako pertsonak kontratatzea sustatzeko diru-laguntzen [deialdia](#).